

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIAKO UDALA

#### **Hasierako onarpena ematea San Pedro inguruan (Guardia, 1810 lurzatia, 5. poligonoa) laborantza etxola bat jartzeko plan bereziari (229 eta 230 behialako lurzati batuak)**

Guardiako Udalbatzak, 2016ko uztailaren 16an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau onartu zuen:

Lehena: hasierako onarpena ematea plan bereziaren hirigintza dokumentuari, San Pedro inguruan (Guardia, 1810 lurzatia, 5. poligonoa) laborantza etxola bat jartzekoari.

Bigarrena: espediente hori jendaurrean jartzea hogeit hamar egunez, ALHAOn eta Arabako Lurralde Historikoan gehien saltzen den egunkariaren batean iragarki bana argitaratuz, erasaten zaiola uste duen orok aztertu eta egoki deritzen alegazioak aurkez ditzan.

Plan berezi honi dagokion ingurumen txosten estrategikoa ALHAOn argitaratu zen 2016ko maiatzaren 23ko alean (58. zk.), eta Guardiako Udalaren web orriko kontratatzailearen profilean, plan bereziaren hirigintza agiriarekin batera:

<http://laguardia-alava.net/documentos.asp?id=3&idioma=es>

Guardia, 2016ko abuztuaren 5a

*Alkate-lehendakaria*

*J. PEDRO LEON GARCIA DE OLANO*